



# FUNTSEZKO JARDUERAK


Mandua egiten hasi aurretik, osagaiak eduki beharko ditugu. Horretarako, goma, plastikoa, inprimagailu 3D, ordenagailuak eta bestelakoak beste enpresa ezberdinei erosiko dizkiegu. Goma, Plasmor enpresari erosiko genioke, Legazpin kokatzen dena. PLA (inprimagailu 3D -an plastikozko haria) ere enpresa berdinari erosiko genioke. Estepzio bat egingo digute. Berez Plastikozko hari mota hau ez dutelako egiten. Legazpiko enpresa honekin hitz egin dugu iada, eta prest egongo lirateke, gure proiektu honetan parte hartzeko.

Beste alde batetik, gure enpresan mandoen diseinua egingo dugu. Diseinatzeko, gure ordenagailuetan "Insight 3D" deskargatuko dugu. Programa honekin lan asko egingo dugu, pieza guztiak diseinatzeko lagungarria delako. Fabrikatu ere guk egingo dugu hasiera batean, atal guztiak egingo ditugu, eta gerora zerbait aldatuz gero, Samsungnekin hitz egin beharko genuke. Lehen hilabetean, guk eskaini behar dugun koloreen gama osoa aurkeztuko dugu. Ehun mando egingo ditugu lehen hilabetean, eta merkatuari nola eragingo dion begiratu eta aztertuko dugu. Bezero bakoitzak aukeratuko du zer koloreko mandoa nahi duen, hau da, pertsonalizatuak izango dira. Hemen beheran ditugu, gure produktuak diseinatuta. Alde batetik kargagailua, eta beste aldetik, mando jakintsua.



Web orrialdea Samsungena erabiliko dugu. Samsungnek Web orrialde garatu bat dauka jada, eta eskuragarritasun handia dauka. Telebista apartaduan egongo dira gure mandoak. Hemen beheran web horrialdearen linka daukagu.

<http://www.samsung.com/es/home/>



Gure mandoarekin amaitutakoan, garraioa izango da hurrengo puntua. Samsungen esku utziko dugu hori, berekin adostutako egunean eta orduan gure enpresatik pasako dira produktu bukatuak hartzera. Hasierako hilabetean behin bakarrik pasako dira gure produktuaren bila. Berria izango denez, guk denbora gehiago beharko dugulako egiteko, eta bezeroak ere asko izango ez direlako. Bigarren hilabetean, bi astetik behin pasa beharko dira, salmentak igotzen joango direlako. Hirugarrenetik aurrera, ordea, astero pasako dira gure lokaletik, eta salmentak ondo badoaz, asteroko produktu kopurua igo egin beharko litzateke.



Beste alde batetik, komunikazio lanak beste enpresekin, gure lokaletik egingo ditugu. Gure taldeko pertsona bat arduratuko da lan honetaz.